



HEZIKETA, KULTURA, KIROL, GIZARTE, BERDINTASUN ETA
GAZTERIA ARLOETAKO JARDUERETAN PARTE HARTZEKO
LAGUNTZAK ARAUTZEKO ORDENANTZA, ETA BAI ALDI BATERAKO
HARRERAKO HAURRAK UDAL INSTALAZIOETAN SARTU AHAL IZATEA
ARAUTZEKO ERE

OINARRIA:

Krisi ekonomikoa Berriozarko herritarren kopuru handi batean izaten ari den eraginaren ondorioz, familia askok ez dute aukerarik Udalak antolatutako jardueretan parte hartzeko, ez baitute baliabiderik.

Administrazio publikoek ezin dute, inola ere ez, ahalbidetu herritarren artean desberdintasunak egotea ondasun eta zerbitzu publikoak eskura izatean.

Hartara, ordenantza honen helburua da baliabide gutxien duten familiei erraztea udal jarduerak eskura izateko aukera, gainerako herritarrekiko berdintasun egoeran egoteko.

Era berean, lortu nahi da Berriozarko familiek udan harreran hartzen dituzten hurrei erraztea udako hilabete horietan udal igerilekuetara joatea.

XEDEA:

Xedea da familiei laguntzak emateko erregimena edo sistema ezartzea, Udalak kirol, kultura, euskara, heziketa, berdintasun eta gazteria arloetan antolatzen dituen zerbitzuak berdintasun baldintzetan eskura izatea ahalbidetzeko.

Harrerako hurrei dagokienez, Udalaren xedea da herri eta nazio desberdinen arteko elkartasuna indartzea, gure herriko familiek egoera sozioekonomiko desberdinean bizi diren pertsonak harreran hartzea bultzatuta.

MURRIZTU EDO DIRUZ LAGUNDUKO DIREN ALDERDIAK:

1. Berdintasun eta gazteria izaerako jardueretako ikastaroetan izena ematea eta/edo matrikula egitea, baldin eta Berriozarko Udalak edo udal honekin hitzarmena sinatuta duten tokiko klubek edo elkarteek antolatutakoak badira.

2. Berriozarko familiek harreran hartutako neska-mutikoak.
Pertsona bakoitzeko jarduera bat eskatzea baino ez da onartuko.

Kirolaren kasuan eta zehazki udako igerilekuetan sartu ahal izatea denean eskatzen dena: ahalbidetuko da murriztea neska-mutiko horiek udako instalazioetara sartzeko eta Berdintasun arloko diru sailen bidez erantzungo zaie.

Diru laguntza hauetatik kanpo geldituko dira: Berrikilanez edo beste enpresa batzuek antolatutako jarduerak.



TASAK MURRIZTEKO ETA/EDO DIRUZ LAGUNTZEKO SISTEMA:

1. Soil-soilik errolatuta dauden pertsonentzat eta Berriozarko Udalak eta/edo udal honekin hitzarmena izenpetuta duten erakundeek antolatutako jarduerak egin behar dituztenentzat.
2. Udalak edo tokiko elkarteek antolatutako udal egitaraueri eragiten die.
3. Murrizketak eta/edo diru laguntzak:
 - ❖ Berdintasun, gazteria... izaerako ikastaroetan izena ematea eta/edo matrikula egitea. Diru sail bat zehaztuko da, proportzionalki banatu beharrekoa, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek erabakitako portzentajeen arabera: kostuaren %50 gehienez (irizpideen arabera), kasu jakin batzuetan izan ezik. Salbuespen kasu horiek Gazteria arloak baino ez ditu erabakiko (gehienez %80, maila "OSO HANDIA").
 - ❖ Harrerako neska-mutikoak (bai jarduerak eskura izatea, bai instalazioetan sartzea ere). Diru saila proportzionalki banatuko da familia eskatzaile guztien artean neska-mutiko kopuruaren arabera. Gehienez 300 €-ko diru saila esleituko da (Berdintasun arloa).

IRIZPIDEAK: murrizketa markatuko dute eta Berriozarko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak zehaztuko ditu. Hain zuzen, hauek dira:

Dagokion profesionalak bi alderdi hartuko ditu kontuan, baita ezarritako gehieneko murrizketa ere. Murrizketaren ehunekoak bi irizpideren arabera erabakiko da: irizpide ekonomikoa eta alderdi sozialen irizpidea.

1. Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztuko dira:

- 1) Errola eta bizikidetzaren orria.
- 2) Nortasun agiria/Pasaportearen orria.
- 3) Familia liburua.
- 4) Alokairu kontratua edo/eta alokairuaren edo hipotekaren ordainagiria, hala denean.
- 5) Familia unitateak eskaera egin baino lau hilabete lehenagoko epean izandako sarrera guztien egiaztagiriak: soldatak, pentsioak, prestazioak...
- 6) Banantzearen hitzarmen arau-emailea edo dibortzioaren gaineko epaia.

2. Baremoa:

Kontuan hartuko dira familia unitateko kide guztien diru sarrera garbiak: soldatak, laguntza sozialak, pentsioak, prestazioak, alokairuaren berrakuratzea... Sarrera horiei etxebizitza gastuak kenduko zaizkie (alokairua edo hipoteka), familia unitateko kideen artean zatituko dira eta emaitza 30 artean zatituko da berriz.



Emaitza 8 baino gehiago bada, eskaerari ezezkoa emango zaio. Emaitza 8 edo 8 baino gutxiago bada, baiezkoa emango zaio.

$$X = \frac{\text{Hilekosarreragarbiak} - \text{Etxebizitzaren hilekogastuak}(1)}{\text{Familiakopertsonakopurua}} : 30\text{egun}$$

- X 6 baino gutxiago bada, diru laguntza %50 izango da (behar handia edo oso handia).
 - X 6 eta 6,9 bitartekoa bada, diru laguntza %40 izango da (behar ertaina).
 - X 7 eta 8 bitartekoa bada, diru laguntza %25 izango da (behar txikia).
- a. Oharra: Etxebizitza gastutzat hilean gehienez 500 euroko alokairu edo hipoteka kuotak hartuko dira soilik. Ez da kontuan hartuko hornidura edo bestelako gasturik.

METODOLOGIA:

Bai 2013an, bai hurrengo urteetan ere, ekintza hauetarako diru saila mugatua izango da. Eskatzeko epea:

1. Jardueren kasuan: maiatzetik irailera bitartekoa (izena emateko egunekin bat etorriko da). Dirua sobera gelditzen bada, proposamenak onartuko dira.
2. Harrerako haurren kasuan: gauden urteko iraila bitartekoa.

Banaketaren proportzionaltasuna Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak ezarritako irizpideen arabera egingo da eta lau premia mailaren arabera izango da:

OSO HANDIA: diru laguntza %80koa gehienez, erroldatutakoen tasaren gainean. Soil-soilik Gazteria arloak aplikatuko du, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen txostenaren arabera.

HANDIA: diru laguntza %50ekoa gehienez, erroldatutakoen tasaren gainean.

ERTAINA: diru laguntza %40koa gehienez, erroldatutakoen tasaren gainean.

TXIKIA: diru laguntza %25ekoa gehienez, erroldatutakoen tasaren gainean.

Diru laguntza hauek ez dira emango, inolaz ere, Udalari egin beharreko ordainketak ez badaude egunean.

Diru laguntza eskatzeko eta onartzeko prozedura:

- b. Eskari orria diseinatuko da. Eskari orri horrek lau zati izango ditu:
 1. Tutore den pertsonaren eta izena emandako pertsonaren edo erakundearen identifikazio datuak agertzen dituen zatia.
 2. Eskatzen den jarduera edo zerbitzua zein den idatziko da.
 3. Oinarrizko gizarte zerbitzuaren azterketa beteko da eta bertan zehaztuko da dagokion diru laguntza.
- c. Interesdunek eskaera orri hori bete beharko dute.
- d. Arlo bakoitzak bere aurrekontu saila kudeatuko du (Gazteria, Kultura edo Kirola) eta dagokion batzordetik pasaraziko du. Nolanahi ere, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen txostena aintzat hartu beharko da.



- e. Jarduera antolatu duen arloak erabakia jakinaraziko dio erabiltzaileari.
- f. 30 eguneko epea abiaraziko da eskaerei erantzuteko.
- g. Eskaerei erantzun eta gero aurrekontu saila gelditzen bada, arlo bakoitzak epetik kanpo eta gauden urteko azaroaren 30a bitartean sortzen diren eskaerak aztertuko ditu.
- h. Kirol ikastaroetarako izen-emateen kasuan, zehaztutako sistema ordainketa zatikatu bidezkoa izango da, bi epetan (%50 AZAROAN, %50 OTSAILEAN).
- i. Jarduerako kuota ordaindu beharko da diru laguntza eman aurretik.
- j. Esleitutako diru saila mugatua da, eta, horrenbestez, proportzionalki banatuko da eskatzaileen artean, banaketa zuzena izan dadin saiaturik, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta inplikaturik dauden arloen irizpideen arabera.

AURREKONTU SAILA (2013)

Atal hauek hartu behar ditu, bereiz aztertuta:

- Gizarte, berdintasun, gazteria izaerako ikastaroetan izena ematea eta/edo matrikula egitea:
 - Gazteria.....1.000 €
 - Beste batzuk.....700 €
- Harrerako neska-mutikoak (bai jarduerak eskura izatea, bai instalazioetan sartzea ere) 300 €
- GUZTIRA 2.000 €

Gazteria arloari 1.000 €-ko diru saila dagokio eta Berdintasun arloari ere bai, 1.000 €-koa.

Berriozarren, 2012ko abenduaren 9an

Alkatea



CRITERIOS

Se consideran dos aspectos a valorar por el profesional pertinente atendiendo a la reducción máxima establecida. El porcentaje de reducción según el caso atenderá a dos criterios: un criterio económico y un criterio de factores sociales.

1. Documentación a presentar junto con la solicitud:

- 1) Volante de empadronamiento y convivencia
- 2) DNI/Pasaporte
- 3) Libro de familia
- 4) Contrato de alquiler y/o justificante del pago de alquiler o hipoteca en su caso
- 5) Justificante de todos los ingresos de la unidad familiar de los últimos 4 meses anteriores a la fecha de solicitud (nóminas, pensiones, prestaciones, etc.).
- 6) Convenio regulador o sentencia de separación o divorcio

2. Baremo:

Se tendrán en cuenta los ingresos netos de todos los miembros de la “unidad familiar” (ingresos salariales, ayudas sociales, pensiones, prestaciones, subarriendo de alquiler, etc.) a los cuales se descontará los gastos de vivienda (alquiler o hipoteca), se dividirá por el número de miembros de la unidad familiar y el resultado se dividirá entre 30.

Si el total es superior a 8 el informe será desfavorable, y si es inferior o igual a 8 será favorable.

$$X = \frac{\text{Ingresos netos almes} - \text{Gastos de vivienda almes}(1)}{\text{Número de personas de familia}} : 30 \text{ días}$$

- X inferior a 6 será máximo de 50% de subvención (grado de necesidad: alto o muy alto)
- X entre 6 y 6,9 será máximo de 40% de subvención (grado de necesidad: medio)
- X entre 7 y 8 será máximo de 25% de subvención (grado de necesidad: bajo)

Nota: Como gastos de vivienda únicamente se computarán las cuotas de alquiler o hipoteca con una cuantía máxima de 500 € mensuales. No se tendrán en cuenta los gastos de suministros u otros.

IRIZPIDEAK

Profesionalak bi alderdi hartuko ditu kontuan, baita ezarritako gehienezko murrizketa ere. Murrizketaren ehunekoa bi irizpideren arabera erabakiko da: irizpide ekonomikoa eta alderdi sozialen irizpidea.

2. Eskabidearekin batera, honako agiriak aurkeztuko dira:

1. Errolda eta bizikidetzaren orria.
2. N.A. / Pasaporte.
3. Familia-liburua.
4. Alokairu-kontratua edo/eta alokairuaren edo hipotekaren ordainagiria, hala denean.
5. Familia unitateak eskaera egin baino lau hilabete lehenagoko epean izandako sarrera guztien egiaztagiriak: soldatak, pentsioak, prestazioak eta abar.
6. Banantzearen hitzarmen arau-emailea edo dibortzioaren gaineko epaia.

2. Baremoa:

Kontuan hartuko dira familia unitateko kide guztien diru-sarrera garbiak: soldatak, laguntza sozialak, pentsioak, prestazioak, alokairuaren berrakuraztea eta abar. Sarrera horiei etxebizitza-gastuak kenduko zaizkie (alokairua edo hipoteka), familia unitateko kideen artean zatituko dira eta emaitza zati 30 zatituko da berriz.

Emaitza 8 baino gehiago bada, eskaera ukatuko da. Emaitza 8 edo 8 baino gutxiago bada, eskaera onartuko da.

$$X = \frac{\text{Hileko sarreragarbiak} - \text{Hileko etxebizitza gastuak}(1)}{\text{Familiako pertsonakopurua}} : 30 \text{ egun}$$

- X 6 baino gutxiago denean, dirulaguntza %50 izanen da (behar handia edo oso handia).
- X 6 eta 6,9 bitartekoa bada, gehieneko dirulaguntza %40 izanen da (behar ertaina).
- X 7 eta 8 bitartekoa bada, gehieneko dirulaguntza %25 izanen da (behar txikia).

Oharra: Etxebizitza-gastutzat hilean gehienez 500 euroko alokairu edo hipoteka kuotak hartuko dira soilik. Ez da kontuan hartuko hormidura edo bestelako gasturik.